

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

OSASUN SAILA

848

IRAGARKIA, zeinaren bidez jakinarazten baita Donostia farmazia-eskualdean (Gipuzkoa) dagoen farmazia-bulego bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela.

Farmaziak eskualdatzeko jardunbidea finkatzen duen martxoaren 16ko 166/1999 Dekretuaren 4. artikulua xedatutakoaren ildotik, Donostia farmazia-eskualdean (Gipuzkoa) dagoen farmazia bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazten da.

Eskuratzeko interesa duten botikariek honako leku hauetan lortu ahal izango dituzte espedienteko argibideak, farmaziari, prezioari eta eskualdatzeko gainerako xehetasunei buruzkoak:

- Osasun Saila, Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.
- Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritza, Olagibel kalea 38, Vitoria-Gasteiz.
- Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza, Antso Jakitunaren kalea 35, Donostia.
- Osasun Sailaren Bizkaiako Lurralde Ordezkaritza, Errekalde zumarkalea 39, Bilbao.

Farmazia eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Farmazia eskuratzeko eskabideei 258,97 euroko tasa ezarriko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 26a.

Farmaziako zuzendaria,
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.